

BARRIRO, UNZUETA

ZER'en lenengo zenbakian Aita Santi'k aspaldion ixilik daukagun idazle on bat agertu euskun: Unzueta'tar Some.

Idaztearen ixiltasun onek min emoten eutsan, euskerea ain maite dauan eta ainbeste Ian gure euskerearen alde egin dauan aita Santi'ri.

Orregaitik, biotzez eskatzen eutson idazleari, barriro idazten asi daitela.

Berak margolaritzan diardu aspaldion. Andreiño erti-zalea benetan! Baiña entzun dau erregua eta Esturo'tar Jon'ek omenez, Vlendata'n 77'ko dagonillaren 25'e an egindako bertsoak bialdu dauskuz: Barru-min edo lirika-bertsoak, «elegia» tankerakoak.

Aurrerantzean be bialduko al ditu olako bertso irakurgarriak. Pozik argitaratuko doguz!

I

ARRATSALDE

*Mendi arteko gentza, bitxabal luzian,
Arratsalde onetan, belbillak ausia.
«Zer jazoten da, ama, ain beste belbilla
Astegun izanda? «ditantso mutillak.
Margo gustitako amaika ba dira
Baita bat da baltza, euren bitartian.
Beitu, beitu ama, beitu bere atzian
Lora zuri-gorritz, ze koro andia!»
Biarrak lagata, basetxen aurrian
Ain beste lagunak, ba dagoz begira.*

*

*Adarrak igitzen mendi piñudiak
Agurtuten dabe uzaban semia.
Ba darue, bai ba, baserri ildegira
Lurperatuteko, bertoko gaztia.*

* * *

*Estalgabetua itxi dabe kutxa.
Bertara eltzen dira erriko lagunak;
biotz bigundurik, legortzen malkuak,
itun eiten dautse azkeneko agurra.*

* * *

*Ai enetxue! da amaren oyua;
Bigunkiro urrundu seniden besuak.
Gatxa ziñeztu il-otzik dagola.
Esango leiteke artu daula loak.*

* * *

*Gero to andiago arratsen illuna...
Illegitik urten eta danak duan.*

*An bakar-bakarrik lotu da gorpua.
Ixil, illunetan, beratan artua,
Besarkatzen dau estu, betiko Ama Lurra.*

I I

BERBIZTU

*Itxasuak iruntzi dan eguzkia
Illunak dana betetzen dau gabian.
Txoriak zugatzetan ixildu dira.
Geldi-geldirik dagoz euren abian
Ezta ezer entzuten dana dan ilda;
Dana illunetan dago eriotz gerizpian.
Itxaropena ez galdu, laster goizian
Argituko da bar'iz zeru guztia.
Baita txio-txioka, barriz txoriak
Agurtuko dau alai egun sentia.*

* * *

*Gau illuna goiz argi, jaungoiko Altsuak
Egunoro bigurtzen dau bere almenaz.
Zuben biotzetatik uxatu itunak.
Bera'gan izan daigun itxaropena.*

* * *

*Lurperatuta, obian, dagon gorpua,
Bertzituta egun baten agertuko da.
Goiko —Lagia beti zuzen betetu,
Alkartuta izan daigun zoriona.*